




DESKRIBAPENA

María Aliende Villasol eta Leire Macho Esteban gara, Berrio-Otxoa ikastetxeko batxilergoko bigarren mailako ikasleak. **Mugikortasun murriztua dutenen bizitza hobetzeko** ideia bat bururatu zitzaigunez, elkarrekin enpresa bat sortzea bururatu zitzaigun **-LERIA MAKILAK-**, ideia hau aurrera ateratzearen **-Larrialdietarako makila-**.

Larrialdietarako makilaren **ezaugarri esanguratsuenak** hurrengoak dira:



→ Makila **pizteko eta amatatzeko** botoi argi bat dago: **ON/OFF** jartzen duena.

→ Makila piztuta dagoenean hainbat zeregin bete ditzake:

- **Megafonoa** duen botoia sakatzean **alarma** bat entzungo da, horrela inguruan dauden pertsoneri deitu ahal zaie zerbait txarto joatekotan.

- **Botoi berdea 112ra deitzeko** da, eta **gorria deia amaitzeko**. Deia egiten den bitartean alarma joko du ere, deitzen ari zarelako larrialdi bat dagoelako; beraz, inguruko norbait hurbildu ahal bada laguntza eskaintzera hobeto.

- **Goiko sareta** deia entzuteko eta ahotsa hartzeko **mikrofonoa** da.

- Makilaren barnetik **sentsore** batzuk daude banatuta. Hauek makilak **kolpe** bat jaso duela eta **horizontal** dagoela **30 segundo** baino gehiagotan nabaritzen badu **deia** bat bidaltzen dio **112ra** eta **alarma** jotzea egiten du.

→ Makilaren **oinarria zabalagoa** izango da (15cm diametroa), horrela hobeto zapalduko du eta oreka mantenduko du. Gainera, euskarria **ez labaingarria** da eta **kautxua** dauka, segurtasun gehiago lortzearen; eta honekin guztiarekin lortzen da **edozein gainazalera primeran heltzea**.

→ **Altuera erregulagarria** da (70-96cm).

→ **Gehienez** har dezakeen **pisua: 130 kg**.

→ Makila **hainbat koloreen** artean aukeratzea dago: beltza, zuria, grisa, morea, berdea eta urdin iluna.



- Materiala **aluminioa** da.
- **Bateria berriz kargatzekoa** da. **24 ordu** piztuta irauten du, eta erdia geratzen denean ahots bat entzungo da saretatik (birritan, lehenengo aldiaren eta bigarrenaren artean 10 minutu pasako dira, horrela entzungo du ziur): “Bateriaren erdia agortu da”. Gainera, eramaileak **inoiz segurtasun barik geratuko dela ziurtatzeko**, bateriari 5 ordu geratzean bateria kargatzeko beharraz abisatzen du erdi orduro.
- **Ekoizpen-prozesu osoa Espainian** egiten da.
- Makila salduko da gure **web orrialdean** (<https://leriamakilak.mycomandia.com/>), antolatuko ditugun **hitzaldietan** eta **farmaziei** saltzeko aukera eskainiko diegu ere.
- Prezioa unitateko **274,99€** dira.

Zehetasun hauek aparte, bezeroak nahi izatekotan, **osagarri** hauek eros ditzake bereiz (denak makilara lotzen dira):

- Heldulekura finkatzen den **uhale** bat, amarradura prestatu bat dauka, **makilatik inoiz ez askatzeko**; hortaz, **oso segurua** da. Haren erosketa bereziki gomendatzen dugu bakarrik **4€** balio duelako eta, gainera, haren bidez eramaileak jaustekotan ziurtatzen duelako **makila bere alboan** egongo dela eta ez dela urrun joango. Halaber, erosleak nahi izatekotan **bere izena azpatu** dezakegu (kasu honetan prezioa 25€ izango lirateke).
- **Bateria gehigarri** bat, horrela oportetan baldin badoa edo galdua joan ohi delako seguru bat nahi badu, **soinean eraman** dezake **beti**. **47€**-tan salduko dugu alea.
- **Esku-argi** bat, leku ilun batean egotekotan argia eman ahal izateko. **15€** izango da salmenta prezioa.

ZER LORTU NAHI DUGU LARRIALDIETARAKO MAKILAREKIN?

Espainian gero eta **agure gehiago** daude: 2018an, 65 urte baino gehiago zituzten pertsonak **8.905.738** ziren, eta 1970an **3.290.679**. Hortaz, kopurua ia **hirukoiztu** da; beraz, bezero potentzial gehiago egongo dira.

DATUAK:

<http://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?path=/t20/e245/p04/provi/l0/&file=00000002.px>

<https://www.ine.es/inebaseweb/pdfDispacher.do?td=140080&ext=.pdf>

Gainera, **bizi-itzaropena** izugarri handitu egin da urte hauetan; izan ere, 65 urte izanda, 1970an **14'7 urte gehiago** bizi izango zinelakoa zen, eta gaur egun **21'15**-koa da. Beraz, ia sei urte eta erdi (6'45) gehiago ditu bizi-itzaropenak, aparteko igoera. Hau esan nahi du pertsonak **helduagoak** izango direla eta makila behar izango luketen pertsona gehiago egongo direla.

DATUAK:

<https://www.ine.es/inebaseweb/pdfDispatcher.do?td=33723&ext=.pdf>

http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177004&menu=ultiDatos&idp=1254735573002

Agureen kopurua igotzeko beste arrazoi bat **gazteek**, lana lortzearen edota ikastearen, **emigratzen** dutela da; beraz, hemen helduak eta agureak geratzen dira, gure **bezero potentzialak**. Bakarrik 2018ko lehenengo sei hilekoan Espainiatik **166.318 pertsona emigratu** zuten.

DATUAK:

http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177000&menu=ultiDatos&idp=1254735573002

Faktore hauek kontuan izanda, agureak egoteko eta hauek **mugitzeko arazoak** izatea (adin gehiagorekin, zailtasunak sortzeko aukera gehiago daudelako) eta beraz **istripuak** edukitzea **errazagoa** da. Arazo honen kontran joan nahi dugunez, **Larrialdietarako makila** sortu dugu.

Merkatuan **beste makila espezializatu bat** dago:

<https://www.elbaulamarillo.es/baston-clever-cane-plegable-con-luz-y-alarma-de-seguridad.html>

Hala ere, **Larrialdietarako makila hobea** delakoan gaude hainbat arrazoiengatik:

- Larrialdietarako makilak ingurukoek entzuteko alarma ez ezik, **112ra deitzeko aukera anitzak ere** dauzka. Horrela bezeroak autonomia gehiago lortuko du eta lasaiago sentituko da.
- Larrialdietarako makila **edozein gainazalera** ondo heltzen da, lurra barne (**Cleve Cane** makilak, bentosak izanda, **ezin** izango du).
- Halaber, Larrialdietarako makilak, ez duenez bentosarik, **ez du behar indar handia** egitea lurzorutik altxatzeko. **Cleve Cane**k, aldiz, bai beharko du lurzoru batzuetan, eta hau arazo bat izan liteke bereziki helduenentzat; izan ere, indar gutxiago izango dute, eta pausu bakoitzean halako indarra egin behar izatea **sekulako esfortzua** izango litzateke.
- Jende **gehiagori zuzenduta** dago; alabaina, **pisu gehiago** jasaten du eta **erregulatzeko tarreak handiagoak** dira.

